

ELKARTASUNEZKO EKONOMIAREN EREDUA ZABALTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

IDEIA NAGUSIA

REAS Nafarroa (irabazi asmorik gabeko elkarte, elkarten erregistroan inskribaturik, 4.780 zk.) hainbat entitatek eta enpresak osatzen dute, eta horiek guztiek bere egiten dute **elkartasunezko mundu baten alde ekiteko** karta.

http://www.economiasolidaria.org/carta_solidaria

Honako hauek guztiak bultzatzeko lanean dihardu REAS Nafarroak: **Banku Etikoa, Elkartasun Enpresak, Bidezko Merkataritza, Kontsumo Arduratsua, Auditoria Soziala** eta **Merkatu Soziala**. Zentzu horretan, REASen baitan hainbat arlotan lanean ari diren entitateak daude: gizarteratzea eta laneratzea; garapenerako lankidetzak; komunikazio alternatiboa, software librea, bioeraikuntza, birziklatzea, kontsumitzaileen kooperatibak, nekazaritza ekologikoa eta abar.

<http://www.economiasolidaria.org/entidades/reasnavarra>

REASen ongi dakigu lan hori —gizarte bazterkeriaren edo lan prekarietatearen aurkako lana, edo honako hauen aldekoa: herritarren parte-hartzea, kulturen arteko elkarbizitza, eskubide zibilak, ingurumena, hirigintzako eredu iraunkorra...— sekulako erronka direla eta lan hori aurrera eramateko modu bakarra sarean lan egitea dela, entitate eta pertsona bakoitzak konpromiso zehatzak hartuta.

Espiritu eraldatzaile eta borrokalari horrekin, REAS Nafarroak hainbat urte daramatza Elkartasun Ekonomiaren Eredua zabaltzeko lanean. Eta horri lotuta akordio zehatzak lortu nahi genituzke komunikazio sozialeko Nafarroako hedabideekin horiek konpromisoa har dezaten gizarterari mezu hori helarazteko. Modu horretan, pertsona ekintzaileak, kontsumitzaileak edo erosketen arduradunek —bai sektore publikoek, bai sektore pribatukoek— bat egin ahal izanen dute Elkartasun Ekonomiaren aldeko konpromisoarekin.

ERAKUNDEEK EMANDAKO LAGUNTZAREN AURREKARIAK

Mozioa Nafarroako Parlamentuan, elkartasun ekonomiaren zabaltzea errazteko (2006ko apirilak 30)

<http://www.parlamento-navarra.es/castellano/boletines/2006/B2006030.pdf>
<http://videoteca.parlamento-navarra.es/Web/Resultados>

Onartutako diru-laguntzak, Administrazioen hainbat arlotatik, REAS Nafarroaren lan-ildo estrategikoetatik sortutako proiektuak bideratzeko: Nafarroako Gobernuaren lankidetzarako zerbitzua, Gizarte Gaietarako Zuzendaritza Nagusia, Iruñeko Udalaren lankidetzarako zerbitzua eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

Nafarroako Ekonomia Alternatiboa eta Elkartasunezkoaren Saretik egindako ekarpenak Nafarroako Gobernuaren Garapenerako Lankidetzak plan gidatzailean sartzea.

Merkatu Erreserbaren Lege baten onarpena, elkartasun enpresak kontratatzeari eta erosketen publiko iraunkorrari laguntzeko.

http://www.economiasolidaria.org/documentos/cambio_de_la_ley_de_contratos_publicos_de_navarra_para_introducir_cambios_en_los_contratos_publicos_sociales
http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2009/26/Anuncio-0

SARE-LANA

Reas Nafarroa Elkartasunezko Ekonomiaren Sareen Sarearen partaide aktiboa da.

<http://www.economiasolidaria.org>

Elkartasunezko Ekonomiaren Sareen Sarearen bidez Ekonomia Sozial eta Elkartasunezkoaren Sustapenerako Nazioarteko Sarearen barnean dago (RIPESS), eta Elkartasun Ekonomiaren nazioarteko mapan parte hartzen ari da.

<http://www.economiasolidaria.org/corresponsales>

Nafarroako hainbat sare sozialekin batera, plataforma batean ari gara lanean:

Nafarroako GGKEen koordinakundea

<http://www.congdn Navarra.org/>

Nafarroako Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren kontrako Sarea

<http://www.redpobreza.org/>

RECADE

<http://www.rcade.org/rcade/nodos/NAVARRA.HTM>

Denontzat

Etorkinen kolektiboa

Fiare Nafarroa elkarte

Bidezko Merkataritzaren kontsortzioa.

Salinas Taldearekin senidetua dago REAS Nafarroa. Talde hori Elkartasunezko Ekonomiaren Kooperatiba bat da eta 10.000 pertsona baino gehiago biltzen ditu bere baitan, soldata duinak, hezkuntza unibertsala, kalitatezko osasun-zerbitzua, eta emakumeen ahalduntzea bermatuz. Udan, lan-kanpamentuen bidez, Reas Nafarroari lotutako pertsona batzuek partekatzen dute esperientzia hori.

<http://www.salinerito.com/>

ZER LAGUNTZA MOTA ESKATZEN DIEGU KOMUNIKABIDEEI?

ERREDAKZIO / EDUKIAK ARLOAREN ALDETIK

REAS bizirik dagoen agente sozial, ukigaia eta potentzial eraldatzailea duen taldea bezala ikustea nahi genuke, eta hau interakzio zuzeneko lan-ildo zenbaitetan gauzatzea.

1. REAS eta bere batzorde espezifikokoak (Kontsumo Arduratsua, Banku Etikoa, Merkatu Soziala, Auditoria Soziala, Nazioartekoa, Senidetzeak...) solaskide eta informazio iturri fidagarria bezala erabili ditzakezue, elkarrizketetan, magazinetan, iritziak biltzeko tenorean. Arlo desberdinetan adituak diren entitate, profesional eta boluntario andana biltzen dituen agente sozial bat gara.
2. Prentsa-oharren, prentsaurrekoen, balorazioen bidez REAS Nafarroak informazioa sortzen duen bakoitzean harreman zuzena, pertsonala, fidagarria eta egonkorra behar dugu. Informazioa "postontzi generiko" batera bidaltzea baino nahiago izaten dugu Elkartasunezko Ekonomiarekin sentiberatuak diren kazetariekin harremana izatea, bere sekziara modu zuzenago batean sartzeko baimena izanda. Zentzu honetan Ekonomia arloa nahiago dugu Gizartearena baino, argi gera dadin agente ekonomikoak garela, eta ez bakarrik sentiberatzearen sustatzaileak.
3. Euskarri-mapa bat guri helaraztea eta azaltzea (lurralde-gehigarriak...) edizio elektronikora, gehigarrietara, edo zuen taldeko bestelako argitalpenetara sarbide izateko kontaktu desberdinetara zuzendu beharra baldin badago..

GERENTZIA ARLOAREN ALDETIK

IRADOKITZEN DUGU, ELKARTASUNEZKO EKONOMIAREN ALDE

1. **REASeko eta Merkatu Sozialeko produktuak kontsumitzea** (eguberrietako gabonsaria, noizbehinkako promozioak, bidezko merkataritzako kafea duten vending-makinak...) <http://www.economiasolidaria.org/guiaNavarra2008>
http://www.economiasolidaria.org/documentos/carta_de_servicios_de_entidades_de_econom%C3%AD_solidaria
2. **Sozialki arduratsua diren enpresen produktuak eta zerbitzuak kontsumitzea.**
3. **Tokiko garapena sustatzen duen ekonomia bultzatzea.**
4. **Migrazioa euskarri ekologikoen eta birziklatuen alde, eta gardentasuna kontu horretan** (papera, tintak, eta abar.)

PUBLIZITATEA / HARREMAN PUBLIKOEN ARLOAREN ALDETIK

ZER ESKATZEN DUGUN

1. Urtean zehar **DOAKO IRAGARKI GENERIKOAK** sartzea GKEei zuzendutako tarteetan. REAsek iragarkien bertsio eguneratua eskainiko du aldiari behin elkartasun ekonomiaren webgunean kokatuta.

<http://www.economiasolidaria.org/reasnavarra/comunicacion>

2. **DOAKO IRAGARKI TEMATIKOAK** jartzeko aukera noizbehinkako gertaera puntualen harira (erosketarik gabeko eguna, Elkartasun Ekonomiaren Nazioarteko Jardunaldiak, Banku Etikoaren jardunaldiak eta kanpainak, Auditoria Soziala...).

ZER ESKAINTZEN DUGUN

Zuen komunikazio-enpresa/entitatearen logoa agertzea **ELKARTASUN EKONOMIA ZABALTZEN DUTEN LAGUNTZAILEEN** zerrendan.

LAGUNTZAILEEN LOGOAREN EUSKARRIAK
Elkartasun Ekonomiaren webgunea
Elkartasun Ekonomiaren gidaliburua
Besterik

Hitzarmen hau interesatutako bi aldeek sinaturak jarri eta gero sartuko da indarrean eta urte bakoitzeko abenduaren 31n berrituko da automatikoki, baldin eta bi aldeetarik batek esplizitoki bertan behera uztea ez badu eskatzen

REAS

Ekonomia Alternatiboa eta Elkartasunezkoaren Sarearen
aldetik
Izena/NAN/Sinadura

.....-ren aldetik
Izena/Zigilua/Sinadura



otra economía es posible

EKONOMIA ALTERNATIBOA ETA ELKARTASUNEZKOAREN EREDUA ZABALTZEKO HITZARMENA,
EKONOMIA ALTERNATIBOA ETA ELKARTASUNEZKOAREN SAREAREKIN

Tokia:

Data:



Elkartasunezko Ekonomiaren Marka bateratua Nafarroarako.
Creative Commons By-Nc-Sa 3.0. lizentziarekin
sortua

